

**IKUSKARITZAKO
URTEKO PLANA
(2001/2002 IKASTURTEA)****SARRERA**

Hasi berri den ikasturte hau azkena da 1999ko irailaren 1eko Hezkuntza Sailburuordearen Ebazpenak zehaztutako aldikoen artean. Izan ere, ebazpen horren bidez onartzen zen Hezkuntzako Ikuskaritzaren Hiru Urteko Plana (1999-2002). Horregatik, jarduera plan honek aurreko bi urteetakoaren antzeko egitura du, eta aipatutako hiru urteko planean zehaztutako bost ekintza-multzoei eusten zaie. Hala ere, ikasturtearen bukaerako inkestan jasotako proposamenak eta aurreko planak direla-eta Ikuskaritza Nagusi honek eta Lurralde Buruek egindako balorazioa kontuan hartuta, hobekuntza batzuk sartu nahi izan ditugu Planeko jarduera batzuk aurrera eramateko zehazten diren prozesuen garapenean. Ondorengo alderdiei buruz begi-bistako agiriak izateko moduan planifikatu behar da jarduera bakoitza, garrantzitsuenak behintzat:

1. Helburua.
2. Aplikazio-eremua.
3. Funtzio eta ardurak:
 - Ardurak ematea jardueraren fase bakoitzean.
 - Informatzeko eta amankomunean jartzeko prozesua.
4. Garapena:
 - Informazioa biltzeko laguntza-agiriak eta txosten-ereduak.
 - Jarduera aurrera eramateko aurreikusitako denbora.
 - Jarduera zuzentzaileak ezartzearen aurreikuspena.
5. Hobekuntza-jarduerak zehazteko garatutako jarduera baloratzea.

Ikasturte honetan ere, behar diren aldaketak planteatzen hasteko baldintzetan gaudela uste dugu, etengabeko hobekuntza garatzeko eta Ikuskaritzaren lanak kalitatea izango duela segurtatzeko. Horretarako, hobekuntza-taldeak osatu behar ditugu, gure laneko ohiko prozesuak aztertu eta hobetzeko, prozesu horiek esperimentatzeko kudeaketa parte-hartzailea bultzatuz eta praktikarik onenak antolakuntza osora hedatzeko.



Horretarako, 2000-2001 ikasturtean osatu diren eta buruan ikuskariak dituzten taldeak osatzetik abiatuko gara, eta nahi duenari emango diogu prozesuak hobetzeko talde horietan sartzeko aukera. Izan ere, kalitate-prozesuei buruzko prestakuntza bultzatzeko asmoa dugu datozen urteei begira, talde horiek osatu eta orain arte prestakuntza espezifiko horretan parte hartu ezin izan duten ikuskariei lehentasuna emanaz. Horrela etengabe hobetzeko metodologiarekin lan egiten duten taldeak lortzea espero dugu, kalitatea segurtatzearekin batera, beraiekin lankidetzan eta beren ezagutzen partaide izanik.

Bestalde, ikuskariak bere ikastetxeekin duen harremanaren garrantzia kontuan hartuta, badugu ere erreferentziako ikuskariaren gida bat egingo duen lan-talde bat osatzeko aukera. Izan ere, ikuskari bakoitzak ikasturtean bere ikastetxeekin egiten dituen ohiko jarduera guztiak jasoko ditu gida horrek.

Orain arte bezala, plantila osoaren laguntza eta partaidetza izatea espero dugu, eta datorren 2002-2005 Hiru Urteko Plana ikuskarrien lana garatzeko zehazten ditugun funtsezko prozesuen arabera izango dela uste dugu.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko irailak 14

Ikuskari Nagusia

Izpta.: Juan M^a Aztiria

**IKUSKARITZAKO URTEKO PLANA
(2001/2002 IKASTURTEA)**

EGIN BEHARREKO JARDUERAK

HIRURTEKO PLANAREN 3. ATALAREN GARAPENA

3.1. IKASTETXEEN EBALUAZIOA

| | JARDUERA | EGITEKO GARAIA | AMAIERA | | | OHARRAK |
|---|--|----------------|--------------------------------|--------|-------|-------------------|
| | | | EMAITZA | EREDUA | DATA | |
| 1 | Ikastetxeko ebaluazioaren diseinu esperimentalak: aldez aurreko fasea. | 1. hiruhilekoa | Ebaluazio Planaren Proposamena | BAI | 12/21 | Hobekuntza-taldea |
| 2 | EFQM ereduaren arabera 300 puntu lortu behar dituzten sareko LHko ikastetxeen ebaluazioa | | Ebaluazio txostena | BAI | | Batzordea |

3.2. HEZKUNTZA SAILAK ONARTUTAKO PROGRAMA ETA PROIEKTUEN EBALUAZIOA

| | JARDUERA | EGITEKO GARAIA | AMAIERA | | | OHARRAK |
|---|---|------------------------|--|--------|----------------------|--|
| | | | EMAITZA | EREDUA | DATA | |
| 1 | Ikastetxeetako Prestakuntza Proiektuen jarraipena | Urria-maiatza | Banakako txostena | BAI | 5/31 | Batzordea |
| 2 | Hezkuntza Berriztatze Proiektuen jarraipena | Urria-maiatza | Banakako txostena | BAI | 5/31 | Batzordea |
| 3 | Ikerketa eta Esperimentazio ikastetxeetako Proiektuen jarraipena. | 1. eta 2. hiruhilekoak | Banakako txostena | BAI | 4/12 | Ebaluatugabeko ikastetxeak |
| 4 | Hizkuntza normalkuntzako programen ebaluazioa | 1. eta 2. hiruhilekoak | Banakako txostena Txosten orokorra | BAI | 3/1 4/12 | Laginaren arabera Batzordea |
| 5 | Curriculum desberdinak eratzeko behin-behineko onartutako taldeei buruzko txostena egitea | Iraila | Banakako txostena Lurralde txostena | BAI | 10/5 10/19 | Curriculum desberdinak eratzeko taldea duten ikastetxe guztiak. |
| 6 | Curriculum desberdinak eratzeko onartutako programaren aplikazioaren jarraipena | 2. hiruhilekoa | Banakako txostena Lurralde txostena Txosten orokorra | BAI | 3/22 4/19 5/10 | Curriculum desberdinak eratzeko baimendutako taldea duten ikastetxeen lagina. Batzordea |

| | JARDUERA | EGITEKO GARAIA | AMAIERA | | | OHARRAK |
|----|--|------------------|--|--------|----------------------|---|
| | | | EMAITZA | EREDUA | DATA | |
| 7 | Hezkuntza Berariaz Esku-hartzeko proiektuen jarraipena. | 2. hiruhilekoa | Banakako txostena Lurralde txostena Txosten orokorra | BAI | 3/22 4/19 5/10 | Onartutako proiektua duten ikastetxe publiko guztiak. |
| 8 | HHko arautu gabeko prestakuntza-programei buruz txostena egin. | Iraila Ekaina | Banakako txostena Banakako txostena | BAI | 9/28 6/28 | HHko ikastetxe publiko eskegileak |
| 9 | HHIn curriculuma benetan ezartzearen jarraipena. | 2. hiruhilekoa | Banakako txostena Lurralde txostena Txosten orokorra | BAI | 2/28 3/15 4/19 | Batzordea. |
| 10 | Curriculumua UOHEIn benetan ezartzearen jarraipena | 2. hiruhilekoa | Banakako txostena Lurralde txostena Txosten orokorra | BAI | 2/28 3/15 4/19 | Batzordea. |
| 11 | Eskolatze programa osagarrien jarraipena | Ikasturte osoa | Banakako txostena Lurralde txostena | BAI | 6/28 | Ikasle guztiak. |
| 12 | Kualifikazio sistemari atxikitako heziketaren auditoria. | Ikasturte osoa | Banakako txostena Txosten orokorra | BAI | 5/24 6/7 | Ikastetxeen lagina. Batzordea |
| 13 | Lanbide-hastapen programen kontrola eta jarraipena | 2. hiruhilekoa | Lurralde txostena Txosten orokorra | BAI | 3/22 4/19 | Batzordea. |

3.3. AZTERKETA, BALORAZIOA ETA AHOLKULARITZA ESKATZEN DUTEN IKUSKARITZAKO JARDUERAK

| | JARDUERAK | EGITEKO GARAIA | AMAIERA | | | OHARRAK |
|---|--|----------------|---------------------|--------|----------------|--|
| | | | EMAITZA | EREDUA | DATA | |
| 1 | Ikastetxeetako Hezkuntza-Proiektuei buruzko txostena egitea | Ikasturte osoa | Aldizkako txostenak | EZ | | Proiektua bidaltzen duten ikastetxe guztiak. |
| 2 | IIPek maila guztietan duten legezketasunari buruzko txostena egitea | Ikasturte osoa | Banakako txostena | BAI | | IIPa bidaltzen duten ikastetxe guztiak. |
| 3 | AIAen legezketasunari buruzko txostena egitea | Ikasturte osoa | Banakako txostena | BAI | Ikasturte osoa | AIA bidaltzen duten ikastetxe guztiak |
| 4 | Derrigorrezko irakaskuntzaren emaitza akademikoak aztertzea horiek hobetzeko informazioa eta aholkuak emateko. | 1. hiruhilekoa | Banakako txostena | EZ | 12/21 | |
| 5 | Derrigorrezko irakaskuntzaren ondorengo emaitza akademikoak aztertzea horiek hobetzeko informazioa eta aholkuak emateko. | 1. hiruhilekoa | Banakako txostena | EZ | 12/21 | |

| | JARDUERAK | EGITEKO GARAIA | AMAIERA | | | OHARRAK |
|----|---|-----------------------|---------------------------------------|--------|--------------|---|
| | | | EMAITZA | EREDUA | DATA | |
| 6 | Eskolatu gabeko irakaskuntzetako (LH I) proben emaitzak aztertzea. | Urria | Lurralde txostena | BAI | 11/9 | |
| 7 | Eskola Graduatuko proba libreetako emaitzak aztertzea. | Urria | Lurralde txostena | BAI | 10/31 | |
| 8 | Bigarren Hezkuntzako Graduatuko proba libreetako emaitzak aztertzea. | Martxoa | Lurralde txostena | BAI | 3/22 | |
| 9 | UISP-etako ariketa guztietan izandako emaitzen berri ematea zuzendaritza taldeari, eta baita ere ikastetxeak besteekin alderatuta duen posizioa.. | Otsaila | Banakako txostena | EZ | 2/28 | |
| 10 | Programazioak aztertzea eta gutxieneko mailak eta ebaluazio-irizpideak daudela egiaztatzea. | 2. Hiruhilekoa | Banakako txostena | BAI | 3/22 | DBH maila Helduen Hezkuntzan eta UOHEIn |
| 11 | Ikasleak ebaluatzeko prozeduretan alderdi pedagogiko eta administratiboa zuzen egiteari buruzko eskakizunei erantzutea. | Ikasturte osoa | Aldizkako txostena | EZ | | |
| 12 | Curriculumaren egokitzapen esanguratsuei buruzko informazioa biltzea. | Abendua | Banakako txostena | BAI | 12/21 | |
| 13 | Ikasleen eskubide eta betebeharren araudia zuzen betetzeaz arduratzea. Bizikidetzaren batzordeari aholkuak ematea. | Ikasturte osoa | Aldizkako txostena | EZ | | |
| 14 | Ikasle etorkin eta behartsuen eskolaketaren jarraipena | 1. eta 2. Hiruhilekoa | Lurralde txostena Txosten orokorra | BAI | 3/22 4/26 | |
| 15 | Irakasle edo zuzendari funtzioaren balorazioa egiaztatze prozesuaren barruan. | Deialdiaren arabera | Banakako txostena | BAI | | |
| 16 | Disziplina-zehapenen tramitazio zuzenari buruzko aholkuak ematea. | Ikasturte osoa | Aldizkako txostena | EZ | | |
| 17 | Eskolaketa-liburuak, ebaluazio-aktak eta espediente akademikoak betetzeari eta zaintzeari buruzko aholkuak ematea. | Ikasturte osoa | Aldizkako txostena | BAI | | Ikastetxe guztiak. |
| 18 | Ikastetxeak baimendu, ezabatu, aldatu eta bat egiteari buruzko txostenak. | Ikasturte osoa | Aldizkako txostena | EZ | | |
| 19 | Memoria eta IUPa egiteko aholkuak ematea. | Iraila | Aldizkako txostena | EZ | | |
| 20 | Zuzendaritza talde berriei laguntza ematea. | Ikasturte osoa | Aldizkako txostena | EZ | | |
| 21 | Ikastetxeei Europako hezkuntza programetan parte-hartzeko aholkuak ematea | Deialdiaren arabera | Aldizkako txostena | EZ | | |
| 22 | Erreferentziko ikastetxeei buruz txostenak egitea. | Ekaina-uztaila | Ikastetxearen txostena | BAI | 7/19 | Ikastetxe publikoak |

3.4. KONTROL JARDUERAK

| | JARDUERA | EGITEKO GARAIA | AMAIERA | | | OHARRAK |
|----|--|---------------------|---|--------|----------------|---|
| | | | EMAITZA | EREDUA | DATA | |
| 1 | Ebaluazioei, sustapenari, ikasleen onarpenari eta abarrei buruz lege-araudia betetzen dela kontrolatzea. | Ikasturte osoa | Aldizkako txostena | | | Ikastetxe guztiak. |
| 2 | EED-aren kontrola | 1. hiruhilekoa | Ikastetxe txostena Lurralde txostena | BAI | 11/30 12/21 | Ikastetxe guztiak. |
| 3 | Eskola-egutegiak onartzeko txostenak egitea. | Ekaina / iraila | Ikastetxe txostena Lurralde txostena | BAI | 6/14 9/28 | Ikastetxe guztiak. |
| 4 | Lagun bakarreko eta taldeko organoen hautaketa-prozesuaren jarraipena eta kontrola | Deialdiaren arabera | Txostena ordezkaritzara | BAI | | |
| 5 | Ikastetxeetako taldeen eta ikasleen kopurua kontrolatu. Egoeraren txostena. | Iraila | Aldizkako txostena Lurralde txostena | BAI | 9/28 | Ordezkaritzak aukeratutako Ikastetxeak. |
| 6 | Ikastetxeen dokumentazio akademikoa eta administratiboa kontrolatu eta aztertu. | Ikasturte osoa | Aldizkako txostena | EZ | | |
| 7 | Irakaslego absentismoaren kontrola. | Ikasturte osoa | Barruti txostena Lurralde txostena | BAI | 7/19 | Ikastetxe publiko guztiak. |
| 8 | Irakasleen titulazioen egokitasuna egiaztatu ikastetxe pribatuetan. | 1. hiruhilekoa | Aldizkako txostena | BAI | | |
| 9 | Eskolaketa-liburuen eskaera, erregistroa eta banaketa | Urria-urtarrila | Erregistroa barrutian | BAI | | |
| 10 | DBHko Graduatu proposamenak onikusi. | Ekaina / uztaila | | | | |
| 11 | Haur Hezkuntako lehen zikloaren jarraipena eta kontrola | Ikasturte osoa | Ikastetxe txostena Lurralde txostena | BAI | 5/3 | Batzordea |
| 12 | Comenius Programaren Kontrola | 2. hiruhilekoa | Ikastetxearen txostena | BAI | 2/28 | Batzordea |
| 13 | Ikasleen disziplina-espeditenteen kontrola | Ikasturte osoa | Lurralde txostena | BAI | 6/28 | |

3.5. LURRALDE ORDEZKARITZEKIN ETA HEZKUNTZA SAILEKO ZUZENDARITZEKIN LANKIDETZAN EGIN BEHARREKO JARDUERAK

| | JARDUERA | EGITEKO GARAIA | AMAIERA | | | OHARRAK |
|----|--|----------------------------------|--|--------|-------|--|
| | | | EMAITZA | EREDUA | DATA | |
| 1 | Euskarazko argitalpen proiektuak baimentzeko txostenak egin. | Ikasturte osoa | Banakako txostena | BAI | 7/19 | 3 Ikuskariren zatikako iharduera |
| 2 | Batxilergoko Aparteko Sariei dagozkien probetan parte hartzea. | Deialdiaren arabera | | | | |
| 3 | Eskola Graduatuko eta Bigarren Hezkuntzako Graduatuko proba libreetarako, Heziketa Zikloetarako sarbideko eta UISP, LH eta abarreko proba ez-eskolatueterako epaimahaietan parte hartzea. | Deialdiaren arabera | | | | |
| 4 | Oposizioetako Epaimahaietan parte hartzea. | Deialdiaren arabera | | | | |
| 5 | EHUrekin elkarlanean aritzea UISPak koordinatzen eta egiten. | Deialdiaren arabera | | | | |
| 6 | Maila ezberdinetan Euskara-salbuespenei buruz txostena egin. | 1. hiruhilekoa | Banakako txostena Lurralde txostena | BAI | 12/21 | Batzordea |
| 7 | Lagun bakarreko organoen proposamena ikastetxe publikoetan. | Ekaina / iraila | Banakako txostena | EZ | 9/14 | |
| 8 | Ikastetxe publikoen plangintzan parte hartzea: ikasle-taldeak, plantillak, etab. | Ordezkaritzaren eskarien arabera | | | | Batzordea |
| 9 | Ondoko ekintzetarako eratzen diren batzordeetan parte hartzea: zuzendaritza karguetarako kreditazioak, titulazioak, zerbitzu eginkizunak, irakasleen merituen baremazioa lekualdatze lehiaketetarako eta bestelako deialdietarako, lantaldeen aparteko sariak eta berrikuntza programak. | Deialdiaren arabera | | | | |
| 10 | Lankidetzan udalekin eta bestelako erakundeekin: Emakunde, GEF, etab | Eskariaren arabera | | | | |
| 11 | Saileko ebazpen eta zirkularrak egiten parte hartzea | Eskariaren arabera | | | | |
| 12 | Ikasturte hasierako gora-beheren txostena egitea | Iraila | Barruti txostena Lurralde txostena | EZ | 9/30 | Ikastetxe publiko guztiak |
| 13 | Ikasgela itunei buruzko txostenak egitea | Urria | Txostena Lurralde Ordezkaritzara | BAI | | Lurralde Ordezkariek eskaturiko ikastetxeena |

| | JARDUERA | EGITEKO GARAIA | AMAIERA | | | OHARRAK |
|----|--|--------------------|--------------------|--------|------|------------------------------------|
| | | | EMAITZA | EREDUA | DATA | |
| 14 | DBHrako curriculum desberdinak eratzeko eskakizunei buruz txostenak egitea | Ekaina-uztaila | Banakako txostena | BAI | 6/5 | |
| 15 | Batxilergoan erabiltzen diren material kurrikularrei buruz txostena egitea | 2. hiruhilekoa | Tosten orokorra | BAI | 3/22 | Ikasgai komunak eta modalitatekoak |
| 16 | Euskadiko Eskola Kontseiluak eskatutako txostenak | Eskariaren arabera | Aldizkako txostena | | | |
| 17 | Irakasleen titulazioei buruz eskatutako txostenak | Ikasturte osoa | Aldizkako txostena | EZ | | |
| 18 | EFQM ebaluazio ereduaren arabera aurkeztutako Memorien balorazioetan parte hartzea | Ikasturte osoa | Ebaluazio txostena | BAI | | EUSKALITekin lankidetzatza. |
| 19 | Arartekoak eskatutako txostenak | Eskariaren arabera | Aldizkako txostena | EZ | | |

Vitoria-Gasteiz 2001eko irailak 14